



*James Karlsenek eta José Luis Curbelo*

## **Ituna Norvegiarekin, ikerketa akademikoa EAEko ekoizpen ehuna lotzeko, ikerketa ekintzaren bidez**

José Luis Curbelok, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko

zuzendari nagusiak, eta James Karlsenek, Norvegiako Agder Research ikerketa institutuko ikertzaile seniorrak, elkarrekin lan egiteko akordio bat sinatu zuten abenduaren 21ean, Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa ekintza bultzatzeko. Ikerketa akademikoaren eta enpresen

arteko lotura estutzeko sortu da akordioa, EAEn posibleak areagotzeko eta produkzioaren hobekuntzan aurrera pausoak emateko. Horren bidez, lortu nahi da Euskal Herria Europa mailako erreferente bihurtzea bertako ekonomiako gizarte eragileekin (enpresa, kluster elkarte, garapenerako agentzia, etab.) estu-estu lotutako ikerketen garapenean. Orkestra eta Agder Research elkarrekin lanean aritu dira Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, kluster elkarte eta tokiko garapenerako agentzietako zenbait proiektutan. Hitzarmen horrek asmo handiagoko konpromisoak hartzeko modua emango du. Horretarako, Orkestrak, Agder Researchekin batera, ikerketa ekintzako ildo berriak zabalduko ditu gizarte eragileekin hainbat esparrutan: enpresa politiken ebaluazioan, eta tokiko garapenerako eredu edo sare parte hartzaileagoak garatzen, besteak beste.